


Euskal AEko eraikuntza-kostuak %0,1 gehitu ziren 2018ko irailean aurreko hilaren aldean

2017ko irailaren aldean %2,2 gehitu ziren kostuak

2018ko irailean, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,1 gehitu zen aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasa %2,2 gehitu zen, EUSTATEN datuen arabera.

Euskal AEko eraikuntzako kostuen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Lan-eskuaren kostuan ez da aldaketarik izan aurreko hilaren aldean (%0,0), eta lehengaien kostua %0,1 igo da.

Lehengaien barnean, Etxegintzan ez da aldaketarik izan aurreko hilaren aldean (%0,0), eta Obra Zibilean %0,4ko hazkundera gertatu da haren lehengaien kostuan. Urte artean, bi azpisektore horiek zeinu bera dute erakusten, baina intentsitate diferentearekin, Etxegintzan lehengaien kostuak %2,0 gehitu baitira eta Obra Zibilean %4,5.

Sektoreak kontsumitutako lehengaietan (2018ko irailean 2017koaren aldean) prezio-hazkunderik handienak, urte artean: *Petrolio fintzea*, %21,8; *Metalurgia*, %9,0; eta *Energia elektrikoa eta gasa*, %3,6. Aldiz, prezio-hazkunderik txikienak lehengaietan azken

hamabi hiletan: *Kautxu eta plastikoa eta Material elektronikoa*, %0,1 kasu bietan; eta *Industria ez-metalikoa*, %0,9.

1. TAULA. EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK (p). 2018ko Iraila

	INDIZEA	ALDEAREN %		
		m/m-1	m/m-12	m/abendua
GUZTIRA	105,2	0,1	2,2	2,8
Eraikinak	105,1	0,0	1,9	2,7
Obra zibila	106,0	0,3	3,8	3,8
LEHENGAI	103,9	0,1	2,3	3,1
Eraikinak	103,8	0,0	2,0	2,9
Obra zibila	104,8	0,4	4,5	4,4
LAN-ESKUA	109,8	0,0	1,8	1,8

Oinarria 2010=100
 (p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
 Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
 Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62